



LEHENENGO SEIHILEKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

SUBVENCIONES RECIBIDAS



ACRECA: 700€. Beken programa, Rwanda .

I.E.S. Tierra Estella: 2.138€. Beken programa, Rwanda.

Parroquia San Francisco de Pamplona: 4.000€ Kabugako proiektuarentzat.

Carmen Gandarias Fundazioa: 14.500€. Etxetxoak eraikitzekeo proiektua, Rwandan.

Loiuko Udala: 1.500 €. Emakumea Trebatu eta Alfabetatzeko Zentroa garatzeko proiekturako. Pereira, Colombia.

Elizbarrutietako Misioak: 25.000 €. Ama-eskoletako gizarte eta hezkuntza jantokien proiekturako. Dirulaguntza hau zuzenean jaso da Kabugan (Rwanda).

Irungo Udala : 69.300 € honako proiektu hauetarako:

- Indartzea eta Autosustentua: Caazapáko Departamentuko (Paraguai) Aba 'i barrutiko Francisco Pablo kokagunean kalteberatasun-egoeran dauden 23 familiari laguntzea.
- Emakumea Trebatzeko/Alfabetatzeko Zentroa garatzea Pereiran (Kolonbia).
- Fukwe-Munoga-Ngamba errepidean zubi bat eraikitzea Kabugan (Rwanda).
- Kabugan (Rwanda) baliabiderik gabeko familientzako lursaila erosi eta 4 etxetxo eraikitzea.



AURKEZTU DITUGUN PROIEKTUAK



Finantzaketa lortzeko egindako eskaerak

- Ordiziako Udala: Kabugan (Rwanda) etxetxoak eraikitzeko.
- Cendea de Galar-eko Udala: Kabugan (Rwanda) etxetxoak eraikitzeko.
- Errenteriako Udala: Kabugan (Rwanda) etxetxoak eraikitzeko.
- La Caixa Fundazioa: Kimigengeko ur-azpiegiturak handitzea (Kabuga/Rwanda).

BEHAR BIDASOAK ONARTUTAKO BESTE PROIEKTUAK



- Pereirako (Kolonbia) Emakumearen Harrera/Trebakuntza Zentrorako mantenua.
- Nekazaritza eta etxe-abereen hazkuntza **Togon**, Zeinu Solidarioak Fundazioaren bitartez
- Enjipai erakundeak **Tanzanian** duen programarekin lankidetzat:
 - Komunak eraikitzea
 - Eskolaren mantenu lanak eta irakasleen soldatak .
 - "Madres Masais" programa: elikagaiak, sendagaiak eta oinarritzko beharrak erosteko lankidetzat.
 - Eskola-laguntzak.



GIZARTE-ERALDAKETARAKO SENTSIBILIZAZIOA ETA HEZKUNTZA



- Apirilaren 10ean topaketa bat izan genuen **Lizarrako I.E.S Ikastetxeko ikasle eta irakasleekin**. Behar Bidasoak garatzen dituen proiektuen berri eman genuen, bereziki Bkena, izan ere, proiektua garatzeko ekarpen ekonomiko bat egiten du ikastetxeak.
- **"Euskadiko Gazteak Lankidetzan"** programaren 32. edizioan parte hartzea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez. Pereiran (Kolonbia) dugun proiektuak aurten ere gazte kooperanteen laguntza izatea nahi dugu.
- Jarduten dugun arloei eta herrialdeei buruzko **informazioa partekatzen jarraitzen dugu**, baita Euskadiko GKEen Koordinakundeak antolatutako ekitaldietan parte hartzen ere.

ZENBAIT GAI

- **Irungo Udaleko** Gizarte Ongizateko Aholku Batzordearen Lankidetzaren eta Tolerantziako Lan Batzordean parte hartzea.
- Ekainaren 20an **Ohiko Batzar Orokorra** egin zen. 2024ko ekitaldiko kudeaketa eta kontuak onartu ziren, baita 2025erako aurrekontua eta jardueren proposamena ere.
- **Ingurumenaren Iraunkortasunerako Sareak Pobreziaren Aurkako Borrokan** egiten dituen bilera eta jardueretan parte hartzea.
- Urteko lehen seihilekoan **laguntza humanitarioko** 14 pakete bidali dira Rwandara.

OROIMENEZ ETA ESKER ONEZ

LERRO BATZUK ESKAINI NAHI DIZKIOGU
BEREN DENBORA GEHIEN BEHAR DUTEN
PERTSONEN ALDE LAN EGITEN EMAN
DUTEN ETA 2025EKO LEHEN
SEIHILEKOAN UTZI GAITUZTEN
KOLABORATZAILEEN OROIMENARI. BERE
KONPROMISOA, ESKUZABALTASUNA ETA
HURBILTASUNA BEHAR BIDASOAREN
BIDEAREN PARTE IZAN DIRA.

GOIAN BEGO...

JOSÉ MARI BLANCO
JOSÉ ZABALA
IGNACIO ADÚRIZ (ARIÑO)
PEDRO ORTEGA
MAITE AIZPURUA
JEAN BOSCO NDIKUMANA

